

2018/01/23ean EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA .

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 23/01/2018.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Josu Miren Ezkurdia Santamaria
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti.
Edorta Barandiaran Garcia
Nestor Arana Arexolaleiba
Rafael Bernal Gato
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2018ko urtarrilaren 23a, arratsaldeko sei eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, José Ramón Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gai ei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 23 de enero de 2018, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2017/11/28 eta 2017/12/18.

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK

2018ko urtarrilaren 17ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

3.- LANKIDETZA HITZARMENA GURUTZE GORRIAREKIN NAZIOARTEKO BABES-ESKATZAILEAK EDOTA IHESLARIAK DENBORA BATEZ HARTZEKO PROIEKTUA GARATZEKO.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek ezagutzen dute errefuxiatuak aldi baterako hartzen laguntzeko udal etxebizitza bat Gurutze Gorriari lagatzeko Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak proposatzen duen hitzarmenaren edukia.

Egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak garatutako eta Gurutze Gorriak kudeatutako nazioarteko babes eskatzaileen eta onuradunen harrera eta integrazio programa garatzeko lankidetzaren hitzarmena sinatzea Gurutze Gorriarekin.

Bigarrena.- Hitzarmenarekin hartutako konpromisoak betetzeko, Gurutze Gorriari bi urtez lagatzea, hileko 250 euroko prezioan, Santa Ana 19, 1. esk. helbideko udal etxebizitza. Lagapena espedientean jasotako hitzarmenaren zehaztutako baldintzen pean egiten da.

Hirugarrena.- Erabaki hau esleipendunari jakinaraztea, eta erabakiaren berri ematea idazkariari, kontuhartzaileari eta udal zerbitzu teknikoei.

4.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA LUZATZEA.

Udalbatzarrak, 2015eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA (DERRIGORREZKO ZERBITZUAK ETA AUKERAKO ZERBITZUAK) emateko kontratua CESP, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES S.A.-k eta ELAI SERBITZUAK S.L.-k osatutako ABEEri ematea 106.791,10 eurotan, gehi % 21eko BEZari dagozkion 22.426,13 eurotan.

Kontratu honek BI URTEKO iraupena zuen 2015eko martxoaren 1etik kontatzen hasita, eta beraz, 2017ko otsailaren 28ra arteko indarraldia.

Administrazio baldintza partikularren agiriko bigarren baldintzaren arabera, epe hori beste bi alditan luza zitekeen urtebetez, eta kontratuaren iraupen osoa ezingo da LAU URTE baino handiagoa izan. Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikuluaen arabera.

2016ko abenduaren 20an Udalbatzarrak hartutako erabakiz lehenengo luzapena egin zen.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratua beste urtebetez luzatzea, Udalak ez baitu behar besteko baliabide material eta pertsonalik zerbitzua emango dela bermatzeko.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aipatutako artikuluaen arabera, kontratuaren luzapena kontratazio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Aurrez esandakoaren arabera, Hirigintza eta Mugikortasun Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, eta udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA (DERRIGORREZKO ZERBITZUAK ETA AUKERAKO ZERBITZUAK) emateko kontratua bigarren aldiz luzatzea URTEBETEZ, baldintza agiriko 2. baldintzan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA.- Kontratua arautzen duen baldintza agirian berariaz jasota dago kontratua luzatuz gero prezioak berraztertze erabili beharreko formula. Formula horren arabera, kontratuaren prezioa luzapen urterako 130.425,38 eurokoa izango da.

HIRUGARRENA.- Aurrez esandako luzapenari dagokion gastua baimentzea. Gastu hori 108.687,81 eurokoa da, eta 2018ko udal aurrekontuko 0100.227.171.00.15 partidaren kargura egingo da, eta gainerakoa, 2019ko aurrekontuaren kargura.

5.- KALEAK GARBITZEKO KONTRATUA LUZATZEA.

Udalbatzarrak 2014ko abenduaren 9an hartutako erabakiz COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A.-k eta ANSAREO SANEAMIENTOS Y SERVICIOS S.A.-k osatutako ABEEri esleitu zitzaion ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA urteko prezio honetan derrigorrezko zerbitzuengatik: 144.539,12 euro gehi %10eko BEZari dagozkion 14.453,91 euro. Kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa zen.

Administrazio baldintza partikularren agiriko 2. baldintzaren arabera, epe hori beste bi alditan luza daiteke urtebetez. Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikulua arabera.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du komenigarri ikusten duela kontratua aipatutako eperako luzatzea, izan ere, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A.-k eta ANSAREO SANEAMIENTOS Y SERVICIOS S.A.-k osatutako ABEEK emandako zerbitzuak beharrezkoak dira kale garbiketa zerbitzuaren funtzionamendu onerako, Eskoriatzako Udalak ez baitu langilerik lan horiek egin ditzakeenik.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aipatutako artikulua arabera, kontratuaren luzapena kontratazio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Aurrez esandakoaren arabera, Hirigintza eta Mugikortasun Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, eta udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A.-k eta ANSAREO SANEAMIENTOS Y SERVICIOS S.A.-k osatutako ABEEri ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO esleitutako Zerbitzuaren kontratua bigarren aldiz luzatzea urtebetez, 2018ko martxoaren 1etik hasitako eraginarekin, baldintza agiriko bigarren baldintzan eta Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA.- Kontratua arautzen duen baldintza agirian berariaz jasota dago kontratua luzatuz gero prezioak berraztertze erabili beharreko formula. Formula horren arabera, kontratuaren prezioa luzapen urterako 162.662,00 eurokoa izango da.

HIRUGARRENA.- Aurrez esandako luzapenari dagokion gastua baimentzea. Gastu hori 135.551,67 eurokoa da, eta 2018ko udal aurrekontuko 0100.227.171.00.15 partidaren kargura egingo da, eta gainerakoa, 2019ko aurrekontuaren kargura.

Kaleak garbitzeko zerbitzua dela-eta, Nestor Aranak gai bat ekarri du hizpidera, bere esanetan kezka handia sortzen diona: herriko bazterretan botata dauden plastiko kopuru handia. Berariaz adierazi du bere asmoa ez dela zalantzan jartzea zerbitzua ondo edo gaizki ematen den; berak esan duenez, guk geuk sortzen ditugulako plastiko horiek, baina, uste du arazoak neurri handiegia hartu duela eta gaiari buruzko gogoeta eskatzen duela.

Alkateak jakinarazi dio berak kexa bat jaso duela gai horri buruz, eta obrak eta zerbitzuak arlora pasatu zuela zer egin daitekeen aztertu dezaten.

Egindako iradokizuna eskertu ondoren, Josu Ezkurdiak erantzun dio egia bada ere askotan guztiok ikusten dugula plastikoak hor daudela, sarri ez dela erraza zerbitzu baten kalitatea kontrolatzea, eta areago, kontratuaren baldintza-orriak aurreko agintaldi batetik datozenean. Esan dio kontratuaren gaur egungo baldintzen arabera ezin dela gauza handirik egin, baina, kontratazio berriari begira baldintza teknikoek orrian kontuan izan beharreko gauzetako bat izan beharko dela.

Kontzientziazio kanpaina bat falta dela iradoki ondoren, Nestor Arana kexu da berak 3 kexa jarri dituelako gai horren gainean eta ez duelako Udalaren inolako erantzunik jaso. Komentario horren aurrean, hizpide izan dute kexak tramitatzeko ezarritako sistema informatikoak ondo funtzionatzen duen edo ez, Udalak gutxienez kexa jaso dela jakinarazi beharko zuelako. Sistemaren funtzionamendua egiaztatzea erabaki da.

6.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZAK 2017KO HIRUGARREN ETA LAUGARREN HIRUHILEKOAN JARRITAKO ERAGOZPENAK.

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkateak 2017ko uztailaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

1.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)

(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2017ko 6.a).

2.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)

(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2017ko 7.a).

3.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)
(Museoari emandako kutxa aurrerakina, 2017ko 1.).

4.- *ESKORIATZAKO JOSE ARANA PATRONATUKO FUNDAZIOARI emandako diru laguntzaren kitapenari buruzko erabakiari jarritako ERAGOZPEN-TXOSTENA*

(ez da justifikatu diru laguntzaren % 100 zertarako erabili den).

7.- *Gabez Takarradan antolatzeagatik 2017an EKeri emandako diru laguntza kitapenari jarritako eragozpen-txostena*

(ez da justifikatu diru laguntzaren % 100 zertarako erabili den).

8.- *BTT MARTXA antolatzeagatik 2017an EKeri emandako diru laguntza kitapenari jarritako eragozpen-txostena*

(ez da justifikatu diru laguntzaren % 100 zertarako erabili den).

Udalbatzarrak informazioa jasotzat jo du.

7.- GALDE-ESKEAK.

Zinegotziek inolako eskari edo galderarik ez dutenez, txanda eman zaie bilkurara etorri diren herritarrei.

Bere burua identifikatu ez duen andre batek hartu du hitza, eta esan du bertan dauden guraso guztien izenean irakurriko duela egun gutxi barru udaletxean aurkeztuko duten idazkia. Idazki horretan jasotzen dute "GOIENAREN" bitartez jakin dutela Udalak Arana kalea autobusentzat irekitzeko asmoa duela oinezkoentzat bakarrik diren orduetan. Kexu dira erabaki hori erdigunearen ohiko erabiltzaile diren gurasoen iritzia eskatu gabe hartu delako, eta eskatzen dute, orain arte bezala, Arana kaleak oinezkoentzat izaten jarraitu dezala, autobusentzat ireki gabe. Adierazi du eskaera horrek 247 sinaduraren babesa izango duela.

Idazkia irakurri ondoren, hainbat herritarrek eta zinegotziek hitza hartu dute.

Hona hemen, laburtuta, bertan esandakoak:

Josu Ezkurdiak eskerrak eman dizkie bilkurara etorri diren guztiei, baina, esan du, bertaratutako bateren bati bilera baterako deitzeko asmoa zuela hona ekarri duten gaia aztertzeko. Esan du lehendabizi saiatuko dela azaltzen zergatik hartu zen erabaki hori, eta gero Arana kalea, orain arte bezala, oinezkoentzat izaten jarraitzeko egindako eskaerari erantzungo diola. Horrela, esan du *"dakizuen bezala, aurreko agintaldian Arana kaleari norabide bakarra ematea erabaki zen, eta oinezkoentzako erabilera egun eta ordu jakin batzuetara mugatzea. Erabaki horrek bere gauza onak ekarri zituen, esaterako, lasai ibili ahal izatea; baina, ondorio negatiboak ere izan ditu, zehazki, garraio publikoan. Horren adibide dira autobusek biribilgunean bira egin behar izatea, sarritan zailtasun handiekin; egin behar duten ibilbidea luzatzea saihebidetik joan behar dutelako... Uste badugu ere ideia ona izan zitekeela erdi gunea oinezkoentzat bakarrik jartzea, uste dugu ere erantzun behar zaiela horrek sortutako arazo guztiei. Hortik dator egiten dugun proposamena, eta uste dugu horrekin, modu erraz batean, autobus zerbitzuarekin dagoen arazoa konpondu daitekeela. Horrela, bakarrik autobusei emango zitzaien orain oinezkoentzat soilik den ordutegian ibiltzeko baimena, hau da, orduko bi autobus igaroko lirakeke. Gure proposamena eremu partekatatu bat zen, oinezkoek erabiltzeko, eta autobusek oso puntualki, 2 autobus orduko. Guk proposatu genuen neurri hori abenduko batzorde batean, mugikortasun plan bat aurkeztu genuenean. Egia da proposamen horren berri eman eta berehala agertu dela zuen kezka, eta bereziki ulertzen ditugu umeen segurtasunari buruz azaldutako beldurrak, gu ere guraso garen heinean, ulertzen dugu zuen kezka. Horregatik esan behar dut ez dugula martxan jarriko gure proposamena, kaleak itxita jarraituko duela orain arte bezala, eta saiatuko garela arazoari beste irtenbide bat aurkitzen. Egon lasai, orain arte bezala jarraituko du, kalea itxita; baina, hori bai, orain arte bezala jarraituko dugu autobusen arazoekin, hau da, saihebidetik buelta egiten... Eta guk ere, Udal bezala, kontuan izan behar ditugu goian, Aranburuzabalan, bizi direnen arazoak. Udal bezala guztion arazoei aurre egin behar diegu eta denon arazoei konponbidea aurkitzen saiatu behar gara, eta esaten den bezala: "tokiko optimoek ez dute globaltasunaren optimoa lortzen"; hau da, oinezkoentzako gunea izan dezaket, oso ona izan daitekeena behar batzuetarako, baina, ez hain ona beste batzuetarako; gure konponbideekin lortu nahi dugu denak ezin badira ere % 100ean pozik egon, % 80an egon daitezela eta beste batzuk % 75ean, eta ez, batzuk % 100ean egotea eta beste batzuk % 0an. Azkenean partekatutako bide bezala (58 minutuz oinezkoentzat eta 2 minutuz autobusentzat) jarri behar badugu ez dugulako beste irtenbiderik aurkitzen, izan ziur segurtasun neurri guztiekin eta eskoriatzar guztion adostasunarekin izango dela. Baina, momentuz, lasai, ez dugu ezer aldatuko eta arazoa aztertzen eta irtenbide bat aurkitzen jarraituko dugu.*

Bilkurara etorritako gurasoek berriz ere diote autobusak igarotzeko baimena ematen bada gune hori jada ez dela oinezkoentzako. Kotxeak kale horretara atzeraka ez sartzeko neurriak hartzea ere eskatzen dute, esate baterako, sarbidea galaraziko duen beste pibote bat jartzea, eta semaforoaren ondoan dagoen pibotea programatzea egutegiko jaiegunetara eta lan egunetara egokitu dadin.

Sarbidea galarazteko neurriak hartzeari dagokionez, Josu Ezkurdiak esan du aztertuko duela eskaera teknikariek, eta bigarren eskaera dela-eta, jakinarazi du ezinezkoa dela teknikoki.

Ondoren, identifikatu ez den beste andre batek galdetu du ea planteatu den Eskoriatzako mugikortasunari buruzko azterketa bat egitea, epe ertain luzerako planteamendua aurreikusiko duen azterketa.

Josu Ezkurdia: *Aurreko agintaldian kalea oinezkoentzat jartzea erabaki zenean, nik ez dut ezagutzen inolako planteamendurik egin zenik, martxan jarri zen eta horrela gaude: batzuentzat hobeto, beste batzuentzat okerrago. Guk, autobus zerbitzuarekin dagoen arazoa dela-eta, aztertu dugu gaia gure teknikariek, eta, bestalde, abenduko batzorde batean egin genuen guk egindakoaren eta proposatzen dugunaren deskargua. Guk, gure teknikariek gai hau proposatu genuenean, ez genuen helburutzat bakarrik garraio edo ibilgailuak eta oinezkoak, baizik eta gaia ikuspegi oinarrizkoagoetatik planteatzen genuen, irisgarritasun aldetik adibidez. Uste dut Eskoriatzako gune askotara zaila dela ume-kotxearekin edo gurpil-aulkiarekin iristea, eta uste dut arlo horretan lan handia egin dugula (adibide batzuk jarri ditu); gauza asko egin ditugu eta beste batzuk egiteko gelditzen zaizkigu. Guretzat lehentasuna du irisgarritasunak. Galdetuta, erantzun du orain udal teknikariek egiten ari dena mugikortasuna aztertzea dela, bere ustez udal teknikariak gaia profesionalki aztertzeko erabat gaituak dira, eta beraietaz oso harro dagoela esan du.*

Rafa Bernal: *Lehendabizi, prozedurari buruzko zalantza bat dut. Hartu den erabaki hau batzorderen batetik pasa behar zen edo teknikarien eta arduradun politikoaren artean hartu daitekeen erabaki bat da?*

Josuk berriz ere dio proposamen hori berak egin zuela abenduko batzordean, eta esan dio Rafa bera ere han zela, bertan mugikortasun plana aurkeztu zela, eta plan horretan azaltzen dela zehaztasun osoz Arana kalearen gainean zegoen planteamendua. Gehitu du: *lehendabizi, planteamendua egin eta informazioa ema zen; bigarrenik, batzordeak informatzaileak dira, erabakiak Alkateak edo Udalbatzarrek hartzen dituzte. Prozedura zuzena da.*

Rafa Bernalek, berriz ere galdetu du: *nork erabaki du hau? Batzordeak bozkatu behar du?*

Josuk errepikatu dio batzordeek ez dutela erabakitzen, Alkateak edo zinegotzi arduradunak erabakitzen dutela.

Horren aurrean Rafa Bernalek honako hau esan du: *beraz, erabaki politiko bat da, aldebakarreko erabakia. Tira! Eta esan duzu batzordean hau aurkeztu zela (esku artean duen dokumentuari buruz, Josu Ezkurdiak batzordean aurkeztu zuela esan duen plana). Eta aurkeztu zena eduki handiko dokumentua da, informatzailea, eta paragrafo batean, zehazki, darabilgun gaia jasotzen da. Gogoratzen dut gaia atera zela eta harritu gintuen une bat izan zela, baina,*

esan genuen garaia iritsitakoan hitz egingo eta eztabaidatuko genuela. Baina, ez bakarrik kasu zehatz horri buruz, baita dokumentu horretan mugikortasunaren gainean jasotako gainerako ekintzei buruz ere. Argien gelditu zitzaidan ideia hau izan zen: “gauza bakoitza batzordetik pasako da eta informatuko zaizue”. Niretzat sorpresa izan da gertatutakoa albisteetan irakurtzea, aldaketa egon da eta oinezkoentzako azalera bat galdu dugu. Hilabeteak daramatzagu batzordeetan mugikortasun hitza arrazoi batzuegatik edo besteengatik sartzen, eta zentzu horretan hainbat proposamen egin ditugu (mugikortasun mahaia eta mugikortasunaren aldeko ituna aipatu ditu), eta mugikortasuna Eskoriatzan pil-pilean dagoen gaia da. Harrigarria da horrelako erabakiak hartu izana eta komunikabideetatik jakin behar izatea. Ez dakit, pixka bat arraroa da. Gainera, ez da bakarrik oinezkoen gaia, autobusena ere hor dago. Azken finean, denok ari gara igartzen, nabaritzen, arazo bat dugula mugikortasunarekin Eskoriatzan. Eta guk, IRABAZItik, azken hilabeteotan behin eta berriz esan dugu gogoeta aldi bat behar dugula. Perspektiba hartzea behar dugu, zer nahi dugun ikustea, eta hori kontuan izanik, irizpideak argi izanda, erabakiak hartzen hasi; eta ez arazo zehatz bati konponbidea emateko adabaki bat jartzen saiatzea bezalako aldebakarreko erabakiak. “Aparkalekua ixten da” kasuan bezala, eta ez ditugu aztertzen aparkalekua ixteak dituen ondorioak, besterik gabe aparkaleku plaza gehiago egiten hasten gara. Ez dugu aztertzen ere aparkaleku horrek Eskoriatzako mugikortasunean izan dituen ondorioak. Azken finean, Eskoriatzako mugikortasun kontuan inprobisatzen ari gara, eta badira herri eta hiriak arazoei konponbideak ematen ari direnak mugikortasun jasangarriarekin, eta bide horretan lan egin beharko genuke. Horregatik, IRABAZIk berriz ere dio: mesedez, egin dezagun gogoeta, guztion artean adostu ditzagun gai horiei buruz eztabaidatzeko oinarriak. Eta, aurkeztu dugun azken dokumentua bide horretatik doa. Tira! Eta niri, gauza hauek, esan dudan bezala: hau ezustekoa!

Josu Eskurdia: Beno, ba, nik zure ezustekoari ezustekoarekin erantzun behar diot, lehen esan dudan bezala, gu mugikortasuna ezezik Eskoriatzak dituen gainerako arazoak ere lantzen ari baikara udal hau gobernatzen hasi ginanetik. Erabaki politikoak, erabaki politikoak dira bai, baina, beti irizpide teknikoetan oinarrituta eta, gaur bezala, herritarren eskaerak entzunda. Hori esanda, bai, guk erabaki dugu, erabakiak hartzeko gaude; bai, batzordeetan horri buruzko informazioa eman dugu, eta zuk azken batzordea amaitzerakoan galdetu zenidanean hori onartu behar al zen, esan nizun eta gaur hirugarren aldiz errepikatzen dizut, batzorde informatzaileak direla, informazioa ematen dela, ideiak kontrajartzen direla, proiektu guztiak entzuten direla... eta hortik aurrera, erabakiak hartzen direla; eta hori da egiten ari garena. Eta aurkeztu dugun mugikortasun planean, 18 orrikoa, lan handia izan duena atzetik, 46 ekintza aurreikusten dira irisgarritasuna hobetzeko, ditugun muga handien barruan mugikortasuna hobetzen saiatzeko. Hortik aurrera, lanean jarraituko dugu. Uste dut egiten ari garena umiltasunez egiten ari garela, pixkanaka-pixkanaka. Uste dugunean proposamen batek ez duela funtzionatzen edo ez duela konbentzitzen, atzera botatzen dugu, eta horretarako ez dugu inolako arazorik. Eta bihar esan behar baldin badugu zerbaitetan oker ari ginela, onartu eta atzera egingo dugu, lasaitasun osoz. Zentzu horretan, Rafa, IRABAZIko zinegotzia, ulertzen dut ez dela justua esaten ari zarena, informazio osoa batzordeetan eman dugulako, ni joaten naizenetan behintzat, hiru horietan. Zentzu horretan, gardentasun osoz. Eta, noski, erabaki politikoak direla, herriak hemen erabaki politikoak hartzeko jarri gaituelako. Eta, apaltasun osoz, lanean jarraituko dugu gelditzen den agintaldi denboran, ahal ditugun gauzak hobetzen, eta ezin ditugunean hobetu, esango dugu.

Rafa Bernalek erantzun dio bozkatu behar ote zen galdetu zuenean dokumentu horren garrantzia argitzeko izan zela, eta baita batzordetan gauza asko bozkatzan direlako ere. Eta gehitu du hitza hartu duenean zalantza bat zuela esanez hasi dela.

Ondoren, eztabaidak bilkurara etorritako beste pertsona batzuekin jarraitu du. Eztabaidan zehar argitu da bai aurreko agintaldian kalea oinezkoentzat jartzeko hartutako erabakia bai honetan autobusak igartzeko hartutakoa ez direla izan Udalbatzarrak hartutako erabakiak, arduradun politikoak hartutako erabakiak izan direla; argitu da ere Arana kalea autobusentzat irekitzeko erabakia gaur egun atzera bota den erabakia dela, eta horren berri ematen zaiela gaur bertara etorri direnei beraiek izan direlako gai horri buruzko kezka agertu eta gaur hemen daudenak.

Aitor Zubizarretak aurreko agintaldian kalea oinezkoentzat jartzeko hartutako erabakia prozesu parte hartzaile baten ondoren izan zela, baina, hori ez dela hemen aztertzen ari garen gaiaren muina esan ondoren, honakoa esan du: *nik ulertu nuen "slow cityren" aurkezpena proiektu baten aurkezpena izan zela eta horri buruz hitz egitekotan gelditu ginela, eta bakoitzak bere iradokizunak ekarriko zituela; areago, uste dut zenbait herritan egindako mugikortasun planak bertan egon ziren teknikarietaren batek ekartzekotan ere gelditu ginela. Orduan, nik EAJren aurkezpen moduko bat zela ulertu nuen, baina, ez batzordean aztertuta eta eztabaidatutako gai bat bezala. Gero, horri lotuta, mugikortasunari buruzko mozio bat aurkeztu genuen, eta aurrekontuak onartzerakoan ere lan edo azterketa bat egiteko partida bat jasotzea proposatu genuen. Proposamena ez zen onartu, eta esan zen gaia udal teknikariek azter zitekeela gaur egun, eta beraiekin lan egingo zela. Hori da testuingurua, eta orain, erabaki bat hartu denean, ni ere harritu naiz. Batzordean ez da eztabaidatu, batzordean dokumentu bat aurkeztu zen, eta gero ez da izan inolako iradokizunik... baina, bitartean, ituna egiteko IRABAZIren proposamena etorri da, talde politiko guztiok elkartu eta gaia eztabaidatzera gonbidatzen duena. Proposamenak esaten du, teknikariak albo batera laga, eta politikook elkartu gaitzela, eta herriaren ordezkari garenez, gaia aztertu ditzagula. Aurreko osoko bilkuran ere eskatu genuen, eta baita zenbait batzordetan ere, nire hitzak dira: egin dezagun guztion artean mugikortasun plan bat. Baina, 4, 6 edo 8 urtera begirako plan bat. Eta, horrela, gero plan hori ez da egongo EAJren, BILDUren edo Alkatetza duen beste edozeinen menpe. Guztion artean egin dezagun gogoeta hori eta erabaki dezagun. Eta hori da orain arte egin duguna. Hemen egin zaigun eskaera horri guztiorri buruz gogoeta egiteko aprobetxatu daiteke. Elkartu gaitzen nola egin pentsatzeko. Elkartu gaitzen zer nolako Eskoriatza nahi dugun erabakitzeko, eta hori ideologia politikoen gainetik egon dadila. Horrela, herritarren iritzia jasotzen badugu, eta teknikariena, 8-10 bat urtera begirako plan bat izango dugu. Nik une oro uste izan nuen "slow cityarena" aztertu eta gogoeta egiteko planteamendu bat zela.*

Josu Ezkurdia: *hirigintza eta mugikortasun batzordean gai horiek guztiak aztertzen ditugu, beharbada, 1 edo 2 pasa zaizkigu, baina, gai guztiak aztertzen ditugu. Zuk eta Rafak mahai politiko bat planteatzen duzue mugikortasuna aztertzeko, eta hirigintza eta mugikortasuna batzordean talde politiko guztiok parte hartzen dugu, eta baita bideragarria izan daitekeen guztiari buruz aholkatzen eta bideragarri zer ez den esaten diguten teknikariek ere. Guk ezin dugu bideragarriak izango ez diren gauzak planteatu. Horregatik uste dut batzordea dela foro egokia gai horiek jorratzeko. Hortik aurrera, guztiaz eztabaidatzeko prest gaude.*

Rafa Bernal: *nik beti esan dut ez dudala gaitasunik mugikortasun arazoari konponbidea emateko. Egia da hortara jartzen banaiz konponbideak eman ditzakedala. Behin eta berriz esan*

dut ez dudala uste bertan gaudenok ere behar besteko gaitasunik dugunik, uste dut kanpoko laguntza behar dugula. Argi dago teknikariek guk baino gehiago jakingo dutela, baina, egia da ere guk defendatzen dugun mugikortasunak, jasangarriak, nolabaiteko espezializazio teknikoak eskatzen duela. Gai berria da, korapilatsua eta zaila, eta edonor ez dago horretan espezializatua. Zeretik hasten gara, beharbada, ez ditugu emaitzak ikusiko 10 urte barru arte, baina, mahai gainean jarri dugun proposamena lehen hondar alea da. Oinarriak jartzea da kontua, lehen gogoetak egitea, esaterako, nori eman lehentasuna, kotxeei edo pertsonei; jendea erdiguneraino erosketak egitera kotxeetan joatea nahi dugun, edo oinezkoei eman behar diegun lehentasuna eta bizikletaren erabilera sustatu. Ez dakit, asko dira hartu beharreko erabakiak, eta gaur egun, ez naiz gaituta sentitzen erabaki horiek hartzeko. Egia bada ere teknikari espezializatuek gaiari buruz azalpenak emango balidate eta proiektu bat jarri mahai gainean, orduan erabakiak har nitzakeela, baina, gaur egun egiten dudana gogoeta oinarritzokoa da.

Josu Ezkurdia: nik, amaitze aldera, sentitzen dut pixka bat gogorra izatea zurekin, baina, Rafa, pixka bat aspertuta gaude zure demagogiarekin. Oinezkoei lehentasuna emateari eta gainontzekoari buruz esan duzun guztia abenduan egin genuen proposamenean jasota dago; beraz, mesedez, irakur ezazu.

Rafa Bernal: demagogia? Zure proposamena hemen dut, dena gorritz, fluoreszentez, jarrita daukat, ez dagoelako inor hori ulertuko duenik. Izatez, lan dokumentu bat ere ez da. Ni ohituta nago dokumentuen artean ibiltzera, eta hori ikusi nuenean pentsatu nuen lehen gauza hau izan zen: zer da hau? Hemen hainbat kontzeptu irakurri ditut, esaterako, mugikortasun jasangarria, eta zuk zeuk ere esan zenuen: "egia da, izenburua aldatu behar diot hau ez baita plan bat". Eta nik esan nizun: "zergatik ez diozu jartzen mugikortasun arloko ekintza plana?". Hemen idatzita dago. Hemen jasotzen den gauza bakarra sakabanatutako zenbait gauza dira, batzuk hemendik, beste batzuk hortik. Demagogia? Hau bai dela demagogia (dokumentuari buruz ari da).

Eztabaida amaituta, Alkateak amaitutzat jo du eskaera eta galderen txanda.

Eta beste gairik ez dagoenez, 19:20an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en fechas 28/11/2017 y 18/12/2017.

2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 17 de enero de 2018 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

3.- CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA Y LA CRUZ ROJA PARA EL DESARROLLO DEL PROYECTO DE ACOGIDA TEMPORAL PARA SOLICITANTE DE PROTECCIÓN INTERNACIONAL Y/O REFUGIADOS.

Conocido por todos los corporativos presentes el contenido del convenio cuya formalización se propone desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas para ceder a la Cruz Roja una vivienda municipal en aras a colaborar en la acogida temporal de refugiados, y

De conformidad con la propuesta elevada, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

Primero: Formalizar con la Cruz Roja un convenio de colaboración para el desarrollo del PROGRAMA DE ACOGIDA E INTEGRACIÓN DE SOLICITANTES Y BENEFICIARIOS DE PROTECCIÓN INTERNACIONAL desarrollado por el MEYSS y gestionado por la Cruz Roja de Gipuzkoa.

Segundo: En cumplimiento de las obligaciones asumidas en el convenio, ceder a la Cruz Roja por plazo de dos años y al precio mensual de 250 euros, la vivienda municipal sita en la planta 1º derecha del nº 19 de Santa Ana. La cesión queda sujeta a las condiciones especificadas en el convenio que obra en expediente.

Tercero: Notificar el presente acuerdo al adjudicatario, y dar traslado del mismo a la Secretaría, Intervención y Servicios Técnicos municipales

4.- PRORROGA DEL CONTRATO DE SERVICIO DE CONSERVACIÓN, MANTENIMIENTO Y LIMPIEZA DE ZONAS VERDES, PARQUES, JARDINES Y ARBOLADOS DE PASEOS EXISTENTES EN EL TERMINO MUNICIPAL DE ESKORIATZA.

El Pleno de la Corporación, en sesión del día 27 de enero de 2015, adoptó el acuerdo de adjudicar el contrato de PRESTACION DEL SERVICIO DE CONSERVACIÓN,

MANTENIMIENTO Y LIMPIEZA DE ZONAS VERDES, PARQUES, JARDINES Y ARBOLADOS DE PASEOS EXISTENTES EN EL TERMINO MUNICIPAL DE ESKORIATZA (SERVICIOS OBLIGATORIOS Y SERVICIOS OPCIONALES) a CESPAS, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. y ELAI SERBITUZAK S.L. (U.T.E.) por un precio de 106.791,10 euros más 22.426,13 euros , correspondientes al 21% IVA

La duración del presente contrato es de DOS años, a contar desde el 1 de marzo de 2015, terminando, por tanto, su vigencia el 28 de febrero de 2017.

